


BAPOREA



BILDUMA

Sophie nahigabetan

Valérie Dayre

Itzulpena: Gerardo Markuleta

ikasmina

Hitzaurrea

ENPARANTZA zeharkatzen ari ginen, etxera bidean. Eskolako irteerara etorri nintzaizun bila, ohi ez bezala. Esaldi solteak trukatuz ari ginen hizketan, sarritan legez. Eta gero galdera egin zenidan, hitz egin berri genituen gaiekin ageriko zerikusirik gabe:

–Beti esaten duzu gauza batzuek hazi eragiten zaituztela. Eta zu, esango al zenidake helduago egin zaituen gauza bat?

Aurrerantz begiratzen zenuen, ezer ez balitz bezala, baina doinuan nabaritzen zitzaizun erasokortasun arinak kezketan zeundela pentsarazi zidan.

Bihotza asaldatu zitzaidan, bizitzak jasanarazten ahal dizkizunen beldur naizen bakoitzean bezala. *Zeozer gertatu ote zaio ene txikiari?*

Eutsi egin nion nik neuk galdetzeko gogoari: Zer dela eta galdera hori? Hazi eragin zaituen zerbait berezia gertatu al da gaur? Edo idazlan bat egin behar al duzu gai horren gainean: “Konta ezazu oroitzapen bat, pasadizo bat, hazi zarelako sentipena eragin dizuna”?

Galdetu banizu, bide batez denbora irabaziko nuen, eta erantzuna pentsatu. Haur batek gai larriren bat proposatzen dienean, helduek itxura lasaia ematea maite dute, aukeran intelijentea, egoera menderatzen dutelako itxura.

Hazarazi nauen gauza bat?

Hainbat erantzun korapilatzen zitzaizkidan go-goan. Hasteko, betiko esaerak, ergelkeria hanpatuak, estilo honetakoak: *Guztiak hazarazten gaitu! Haztea ulertzea da. Hainbat gauza batera izan ohi da...* Nik ez neukan, bestalde, gertakari nabarmenik bat-bateko hazkuntza baten ziurtagiri gisa erakusteko; esaterako, aitaren heriotza goiztiarra, edo neba txiki baten jaiotza, etxe-aldaketa zoritxarreko bat ez dakit nora..., ezta “gerra eder bat” ere, ergelek esaten duten moduan. Hainbat irudi, aurpegi, ideia, etengabe igarotzen zitzaizkidan burutik, arrapaladan.

Eskua hartu nizun, eta interes bako erantzun-puskak farfuilatu nituen.

Zu isilik zinen. Neguko gaua etortzekotan zen. Nekaturik sentitu nintzen. Ondo ulertu: ez ninduzun zuk nekatzen, ezta zu hor izateak ere, baizik eta ezintasun-egoera betiereko batek. Idealki eman beharko litzaizukeena emateko ezintasuna. Babestu ezineko arriskuak zure bidetik baztertu ezina.

Ez zenion berriz ekin galdetzeari. Zure ikaskideetako batek korrika aurreratu gintuen, eta haren gaineko zerbait aipatu zenidan.

Hara, ondo iruditzen bazaizu, ilunkeran enparantzara itzul gaitezke. Parkeek, neguan batez ere, gonbitea egiten dute konfidentziak egin eta oroitzapenak berpizteko.

* * *

Imajina ezazu.

Imajinatu neskatila bat. Zehatz zer adin duen, ez dio axola. “Handiegia zara honezkero” bezainbeste aldiz “txikiegia zara oraindik” entzun ohi den urte horietan dago. Aita-amentzat, baita okindegiko andrearentzat ere, aldika “zeinen handia” da, eta aldika “ene txikia”. (Batzuetan, Rosemonde-k “ene txikitxo” xuxurlatzen dio. Horrelakoetan badaki airean tristura apur bat izaten dela, edo emozioa behintzat). Berak pozak eta penak ditu, mundu guztiak bezala. Hazten ari da, poliki.

Frantzia iparraldeko hiri batean bizi da, Roubaix-en.

Sophie du izena, grezierazko *sophia*-tik: jakituria, zientzia.

–Bai, bai, badakit –esan ohi dio irakasle berri bakoitzari, beti nahi baitute: 1. zenbat dakiten erakutsi; 2. gurasoek izena jakinaren gainean jarri ziotela egiaztatu; 3. neskatila adoretu, izen horrek eskuzabal eskaintzen dion bideari jarrai diezaion.

–Bai, bai, badakit.

Eta esan, aurpegi aldi berean irribarretsu, kikildu eta gogaituz esaten du.

Beste batzuek –oro har atso zahar zimelak izaten dira– Segur-eko kondesaren Sophiez hitz egiten diote (*Sophieren nahigabeak* oso eleberri ezaguna da Franzian). Bere amari liburu hori higuigarria iruditzen zaiola erantzuten die.

Bere ama Rosemonde da –lehentxeago aipatu dut haren izena–. Sophiek oso gustuko du, “*rose*” (frantsez, arrosa) eta “*monde*” (mundua) biltzen dituelako. Ez daki bere amak izen hori merezi ote duen baina –onartu beharra dauka–, harrigarriro, oso ondo ematen dio. Rosemondek sei seme-alaba ditu.

Sophie bigarrena da. Inguruan zenbat seme-alaba bakar dituen gogoan hartzen duenean, inbidia apur bat izaten die (sarri, elkarrekiko inbidia izaten da, baina bera ez da horretaz ohartzen). Hala ere, behin, alaba bakarraren gisa jokatzeko aukera izan zuen.

Utzidazu kontatzen urte hartan zer gertatu zitzaion.

Martxoko egun batez erabaki zuten bidai egitea. Sophie eta beraren ama, biak bakarrik, Cora-ren –Rosemonderen ahizparen– etxera joango ziren, udaberriko oporrak pasatzera. Ez, ordea, Nizako etxera, han bizi baitzen izeba bere senar abokatu eta bere bi haurrekin (Sophieren lehengusu-lehengusina propioak, beraz); baizik eta mendi aldera, Italiako mugatik gertu, oporretako etxera.

Rosemondek eta Corak ez zuten sarri elkar ikusten, eta bien artean zegoen distantzia ez zen horren errudun bakarra. Izan ere, ahizpa biek ez zuten sekula elkar ikusten. Sophiek ez zekien ia ezer jende horren inguruan, sekula interes gehiegi sortu ez zioten argazki batzuk salbu. Tira, haien beste zer bait ere eza gutzen zuen... jantziak –azalduko dizut.

Horra biak, bada, apiril hasierako egun batean, gaueko trenean abiatu rik, Frantziako beste muturre-rantz, Iparraldeko jendeari ametsak eragiten omen dizkion Hegoalde horretarantz. Abiatu rik, eta iri-tsirik.

Sophieren zorigaitzerako.